

# AZPEITIA

2000ko udazkena

Azaroaren 3tik abenduaren 21era

# Euskadiko XVIII. Euskal Antzerki Topaketak



AZPEITIA

2000ko udazkena

Azaroaren 3tik
abenduaren 21era

# Euskadiko XVIII. Euskal Antzerki Topaketak

# XVIII. Euskal Antzerki Topaketak




## XVIII. edizioaren kartel irabazlea

Euskadiko Euskal Antzerki Topaketen XVIII. Edizioa azaroaren 3an irekiko bada ere, aurrez izaten da zer eginik. Besteak beste, urtez urte indartzen ari den Kartel Lehiaketa apirilean jarri zen martxan. Ohi bezala, lehiaketara aurkeztu ziren 25 lagunen 32 lanekin erakusketa bat antolatu zen Udaletxean eta jada ekainerako jakin izan zen kartel irabazlea. Jone Bergara gazte zestoarraren lana aukeratu zuen horretarako izendatutako epaimahaiak. Halaber, erakusketara gerturatu zen ikuslegoak ere azken erabakian pisua izan zuen, bere botoa emanez norberaren iritzia adierazteko aukera izan baitzuen. Dena den, Jone Bergara irabazleak ez du oraindik jaso bere saria, izan ere, Santo Tomas eguneko Euskadiko Antzerki Topaketen amaiera ekitaldian eskuratuko baitu.

Kartel irabazlea, aurten Euskadiko Euskal Antzerki Topaketen iragarkietan erabiliko den irudia da, idatzizko eta ikusentzunezko hedabideetan nahiz kale, erakuslehio eta baimendutako tokietan. Baita edizio bakoitzaren inguruan antolatutako jendaurreko eta gizarte mailako ekitaldietan ere. Beste hitz batzutan esanda, kartel irabazlea, Euskadiko Euskal Antzerki Topaketen XVIII. Edizioaren jendaurreko aurpegia izango da.

AGURRA

# Azpeitian, antzerkia biziz



Jose Mari Bastida
*Azpeitiko Alkatea*

Heldu da azkenean, Euskadiko antzerkizaleok irrikiz espero izaten dugun garaia, antzerki garaia, alegia, Euskadiko Euskal Antzerki Topaketen XVIII. Edizioa jada gainean baitugu.

Euskadiko Euskal Antzerki Topaketak Azpeitian egiteak ohore handia behar du izan azpeitiar guztiontzat. Antzerki Topaketak antolatzen dituen Udalarentzat berriz, ohorea izateaz gain ardura handia ere bada. Egun ezagutzen ditugun Antzerki Topaketa osatu eta arrakastatsuetaraino heltzeko bide luzea egin da, teloi atzean, foku eta eszenatokitik urrun diharduten hainbat lagunen antolakuntza, etengabeko lana eta ahalegin tinkoak ezinbestekoak izan direlarik.

Antzerki Topaketak azpeitiarrentzat nahiz euskal zaletuentzat erreferentea dira. Azpeitia, euskaraz eginiko azken antzezlanak biltzen dituen topagunea bilakatu da eta, honi esker, azpeitiarrok herritik mugitu gabe Euskal Herrian zehar pil-pilean dabiltzan antzerki onenak edota entzute handieneko estreinaldiak ikusteko aukera dugu. Azpeititik kanpo ere, jakina, Euskadiko Antzerki topaketak aski ezagunak dira. Alde batetik, antzerkiaren muduan mugitzen direnak eta bestetik zaletuak, azarotik abendurainoko tarte horretan, baztertu ezineko hitzordu bat dutela badakite.

Azpeitiko Udalean harro gaude orain artean lortu dugunarekin; honek ez du esan nahi, ordea, gure ahalegina hor geldituko denik, aurrera jo behar baitugu urtez urte hobetuz. Zentzu honetan, euskaraz eginiko antzezlanak bultzatzearen konpromisoari jarraipena ematea da gure asmoa.

Ez nuke nahi antzerkizale guztioi ongi etorria eman gabe agurtzerik. Ongi etorriak izan zaitezte, bada, eta antzerkia gogotik bizi dezazuela, azken batean, bizitza bera ere guk geuk taularatutako antzerki itzel bat baita!



Nekane Larrañaga
*Kultura Znegotzia*

# Topaketen XVIII. edizioa martxan

Euskadiko Euskal Antzerki Topaketak XVIII. edizioraino heldu dira dagoeneko, sortu zireneko xedea fideltasun osoz betez, xede hori, euskara eta bide batez euskal kultura bultzatzea izanik.

XVIII. edizio honen bereizgarri nagusia, Opera batekin hasi eta Zartzuela batekin amaitzen dela da, eta bigarrenik estreinaldi ugarirekin aurkitzen garela. Denera, 13 emankizunez, gozatzeko aukera izango dugu aurten, antzerki profesionala zein amateurra, kale antzerkia, eskola antzerkia eta haurrentzat ere izango da tartetxoa. Etorkizunari begira, gaztetxoen artean zaletasuna errotzen saiatu nahi dugu, eta hildo honetan Eskola Antzerki Topaketek bere lekua izango dute aurtengoan ere.

Urtero egiten den omenaldiari gagozkiola, aurten Gabriel Aresti idazle eta olerkari euskaldun paregabea omenduko dugu. Maskarada antzerki taldeak, Gabriel Arestiren omenaldi ekitaldian, bere lan esanguratsuenen irakurketa antzeztua eskainiko du. Idazle ezagunaren liburu bat argitaratuko da eta erakusketa bat zabalduko da berari eskainia. Gauean Maskaradak berriro ere, Arestiren "Kaio luma zikina" lana taularatuko du. Ezin gara Irrati lehiaketaz ahaztu, bertan ere Arestiren irudia izango baita abiapuntu nagusiena.

Antzerki Topaketen antolatzaileok aurten bereziki gustora gaude aurkeztuko dugun antzerki eskaintzarekin, osatua eta anitza delakoan baikaude. Zuek, antzerkizaleok ere, gure iritziarekin bat etortzea espero dugu.

agenda

# azaroa


3 ostirala — Gabriel Arestiri buruzko **Irrati Lehiaketa**. — 21 or.
Enparan Dorretxean, arratsaldeko 16:00etan.

4 larunbata — **SAROBE** Arte Eszenikoen Gunea. ***Opera.*** — 8-9 or.
*"Emakumezkoen Zapatak". OPERA.* **Estreinaldia.**
Zelaitxo Antzokian, gaueko 21:30etan.

10 ostirala — Gabriel Arestiri buruzko **Irrati Lehiaketa**. — 21 or.
Enparan Dorretxean, arratsaldeko 16:00etan.

11 larunbata — **TENTAZIOA + TRICICLE.** — 10 or.
*"Ez da hain erraza".*
Zelaitxo Antzokian, gaueko 21:30etan.

17 ostirala — Gabriel Arestiri buruzko **Irrati Lehiaketa**. — 21 or.
Enparan Dorretxean, arratsaldeko 16:00etan.

18 larunbata — **BEDEREN 1.** — 11 or.
*"Laurel eta Hardy zerura bidean".*
Zelaitxo Antzokian, gaueko 21:30etan.

24 ostirala — Gabriel Arestiri buruzko **Irrati Lehiaketa**. — 21 or.
Enparan Dorretxean, arratsaldeko 16:00etan.

25 larunbata — GABRIEL ARESTI SEGUROLA idazleari **OMENALDIA.** — 20 or.
Udal Areto Nagusian, eguardiko 12:30etan.
*Omenaldiko ekitaldia:*
- Ekitaldi akademikoa eta liburuaren aurkezpena.
- MASKARADA TALDEkoek Gabriel Arestiren hainbat testuren irakurketa antzeztua eskeiniko digute.
  Aktoreak: Patxo Telleria eta Mikel Martinez.

25 larunbata — **MASKARADA.** — 12-13 or.
"Kaio Luma Zikina" Aresti hitzez-hitz.
Zelaitxo Antzokian, gaueko 21:30etan.

27 28 29 30 — **ESKOLA ANTZERKI TOPAKETAK** — 22-23 or.
Zelaitxo Antzokian, goizeko 11:00etan eta arratsaldeko 15:30etan.

27 astelehena — **DAR DAR PRODUKZIOAK.** — 22or.
*"ALIZIA bitxikerien lurraldean".*
Zelaitxo Antzokian, arratsaldeko 15:30etan.

# abendua


**1** ostirala — Gabriel Arestiri buruzko **Irrati Lehiaketa**. ........ 21 or.
*AZKEN EKITALDIA.*
Enparan Dorretxean, 16:00etan.

**1** ostirala — **BEDEREN 1.** ........ 14 or.
*"Agureok ez genuke maitemindu behar"*
Zelaitxo Antzokian, gaueko 21:30etan.

**2** larunbata — **ZURRIOLA ANTZERKI ESKOLA.** ........ 15 or.
*"Gure haurtzaroko lorategia".* **Estreinaldia**.
Zelaitxo Antzokian, gaueko 21:30etan.

**8** ostirala — **TXALO.** ........ 16 or.
*"Emaztea kapelarekin nahastu zuen gizona… eta beste kasu batzuk".* **Estreinaldia**.
Zelaitxo Antzokian, gaueko 21:30etan.

**9** larunbata — **TANTTAKA.** ........ 17or.
*Novecento "Ozeanoko pianista".*
Zelaitxo Antzokian, gaueko 21:30etan.

**16** larunbata — **TRAPU ZAHARRA.** ***Kale antzerkia.*** ........ 24 or.
*"Paquetito".*
Enparantza Nagusian, eguardiko 12:30etan.

**16** larunbata — **AZPEITIKO MUSIKA BANDAK, ARETXABALETAKO ABESBATZAK, JULIAN BARRENETXEA ABESBATZAK ETA ITSASI DANTZA TALDEAK.** ***Zartzuela.*** ........ 19 or.
*"Baserria" Zartzuela.* **Estreinaldia**.
Zelaitxo Antzokian, gaueko 21:30etan.

**21** osteguna — **XVIII. ANTZERKI TOPAKETEN AMAIERA** ........ 26 or.
*Sari banaketa.*
Udaletxeko Areto Nagusian, eguerdiko 12:30etan.

**21** osteguna — **KUKUBILTXO.** ***Kale antzerkia.*** ........ 25 or.
Olazko Amaren Plazatxoan, arratsaldeko 16:30etan.

# “Emakumearen z



# aren zapatak"

**OPERA**

estreinaldia



AZAROAK 4

larunbata, 21:30etan, Zelaitxo Antzokian

### Laburpena

Frogatu nahi duen gizon baten eta frogatzerik nahi ez duen emakume baten arteko istorioa izan liteke laburtuz. Bakoitzak besteari gertatzen zaionari buruzko iritzia du, bereiziki, eta bere ego-a babestu nahian, irribar egin, sofritu eta hil egiten dira arima gorra duten gizaki bedeinkatuak bezala.

### Fitxa artistiko eta teknikoa

**Musikagilea:** Angel Illarramendi.
**Libretoa:** Enrique Santiago.
**Musika zuzendaria:** Joseba Torre.
**Eszena zuzendaria:** Enrique de Santiago.
**Eszenografia diseinua:** Fernando G. Ansa.
**Argiztapen diseinua:** Xabier Lozano.
**Banaketa:**
Gizona • Ramon Agirre.
Emakumea • Isabel Alvarez (gazteleraz)
Irene Ojanguren (euskaraz).
Medikua/Korua • David Azurza.
Emakume gizena/Erizaina/Korua • Izaskun Arruabarrena.
Politikaria/Korua • Pello Ormazabal.
Erizaina/Korua • Josu Lopez Soraluze.
**Musikariak:**
Xirula • Axier Basabe.
Klarinetea • Jesús González.
Tronpeta • Esther Lopez.
Bibrafonoa • Ainhoa Gutierrez.
Arpa • Sonia Rodriguez.
Kontrabaxua • Patrizia Fernandez.
Biola • Edurne Olazabal.
**Zuzendari laguntzailea:** Josu Lopez Soraluze.
**Jantzien diseinua:** Josu Lopez Soraluze.
**Makilaiaren eta ileordeen diseinua:** Antonio Tomé.
**Irudi materialaren diseinua:** Angel Haro.
**Eszenografia eraikuntza:** Ikaro.
**Soinu eta argiztapena:** A.G.T.
**Muntaia koordinazioa:** Pepone de Pedro.
**Makinari burua:** Txetxu Delgado.
**Makilatzaileak:** Nekane Company eta Olaia Arkauz.
**Euskarazko itzulpena:** Xanti Gorrotxategi.
**Egoitzapena:** Ramon Agirre.
**Bideo errealizatzailea:** Carlos Belmonte.
**Bideo ekoizpena:** Acción Visual.

# "Ez da hain erraza"

AZAROAK 11

larunbata, 21:30etan, Zelaitxo Antzokian



## Laburpena

Pertsona batek bere bikotekidea utzi nahi du eta ez daki nola.

"Ez da hain erraza" komedia intimo eta intimista da. Intimoa, desamodioaz ari delako, hain gai pertsonala, halabeharrez, unibertsala dena; eta intimista, bitan banatzen den eszenatoki batean gertatzen delako, protagonistaren irudimenari esker bere etxea bihurtzen da, hiria, hondartza... etab...

Hiru pertsonaia bakarrik desamodioaz hizketan, ezerezaz hitzegitea bezala da. Hiru pertsonaia hauetatik, bata Kike da, hitzegin beharra daukana edo, agian, bere pentsamenduak ozen entzuteko beharra duena. Gaizki hartua izango den berria, susmo hori dauka, eman beharra duena. Bestea, kamarero sikologo horietakoa da, lasaitu daitezen bezeroaren esanetara jartzen dakiten horietako bat; eta, hirugarrena, Andrea, Kikeren emaztearen irudimenezko isla da; eta honek birtualki antzezten dituen Kikeren burutik pasatzen diren uzteko eta ondo geratzeko aukera guztiak.

Azken batean, "Ez da hain erraza"k ezkon-bizitza amaitzeko arrazoi eta aukera abaniko bat aurkezten digu. Protagonistaren irudimenean zehar egiten den ibilbidea da, ikusleak bere burua irudikatua ikus dezan. Bikoteari buruzko komedia intimoa da, baina batez ere, obsesioari buruzko estilo ariketa: lehenengo, protagonistarena -berak berri txarra uste duena emateko hamaika modu bilatzen duena-, eta, bigarrena, egilearena -oinarri errealista batzutatik irten gabe gai beraren inguruan eskeintzen den ugaritasunari zentzu teatrala ematen saiatu baita.

## Fitxa artistiko eta teknikoa

**Aktoreak:**
Kike • Joseba Apaolaza.
Andrea • Mireia Gabilondo.
Kamareroa • Eneko Olasagasti.

**Egilea:** Paco Mir.

**Itzulpena:** Eneko Olasagasti.

**Eszenografia:** Jose Ibarrola.

**Jantziak:** Eli Elizondo.

**Argiztapena:** Xabier Lozano.

**Zuzendaritza:** Fernando Bernués
Carlos Zabala.

**Zuzendaritza teknikoa:**
Edi Naudó.

**Teknikari taldea:**
Josetxo Almandoz.
Lucía Ocáriz.
Mikel Tello.

**Diseinu grafikoa:**
Cruz Larrañeta.

**Argazkia:** Manuel Díaz de Rada.

**Ekoizpen exekutiboa:**
Tentazio Produkzioak.

**Ekoizpen Koordinazioa:**
Aitor Vitoria.

**Komunikazioa:** Maite Arrese.

**Administrazioa:**
Maite Gorrotxategi eta Elena Loiarte.

**Gerentzia:** Koro Etxeberria.

**Banaketa:** Julio Perugorria Producciones S.L.

# "Laurel eta Hardy zerura bidean"

## BEDEREN 1

profesionala



larunbata, 21:30etan, Zelaitxo Antzokian

AZAROAK 18

### Laburpena

Laurel eta Hardy, beste lanegun gogor bati aurre egiteko prest daude. Harresiegileak dira, harriz harri, harresia osatu behar dute, nekearen nekez eraiki behar dute. Prest ote daude?

Bi klown dira, eta bizitzako gora-beherak, eragozpenak, alaitasun eta penak azalduko dizkigute. Hori bai, dena zalantzan jarriz, dena hankaz gora jarriz.

Komedia modernoa, tartean absurdoa eta ironia... Paul Auster-en esku zorrotzetik ateratako idazlana, Bederen 1-ek eskeitzen diguna.

### Fitxa artistiko eta teknikoa

**Laurel:** Patxi Santamaria.
**Hardy:** Inazio Tolosa.
**Idazlea:** Paul Auster.
**Itzulpena:** Olerti etxea.
**Zuzendaria:** Isidoro Fernandez.
**Argiztapena:** Aitor Baio.
**Eszenografia:** Ander Hormazuri.
**Musika:** Inazio Tolosa.
**Atrezzo eta jantziak:** Bederen 1.
**Ekoizpena:** Bederen 1 eta Olerti etxea.

# "Kaio luma zikina" Aresti



Egun honetan bertan, eguerdian, Azpeitiko Udaletxeko Areto Nagusian, Gabriel Arestiri omenaldia egingo zaio eta hor ere Maskarada taldeak idazle honen lanetako bat eskainiko digu (ikus xx orrialdea).

# Aresti hitzez hitz

**MASKARADA**
profesionala

**AZAROAK 25** larunbata, 21:30etan, Zelaitxo Antzokian

## Laburpena

"Kaio Luma Zikina" ikuskizun berezia da, antzerkitik errezitalera doan bidean koka daitekeena. Izan ere, hasiera batean Arestiren zenbait olerkiren errezitala izan behar zuen, baina, jakina, Arestik poesia ez den beste arlo asko ere jorratu zuen, eta Maskarada antzerki talde bat, beraz, testuak pilatzen joan ziren eta gero eta gehiago teatralizatu genituen........ "Kaio Luma Zikina" ikuskizun "parateatrala" sortu arte.

"Kaio Luma Zikina", beraz, Arestiren hainbat testuren irakurketa antzeztua da, Arestiren beraren hitzaldi bat eta hor bere bizitza eta lana kontatuko zaizkigu. Hitzaldi horretan bigarren pertsonaia bat dago: Aresti hizlariaren laguntzailea batzuetan, beraren teatro lanak antzeztu edota ipuinak kontatuz, eta antagonista beste batzuetan, Arestik izan zituen kezkak, ardurak, jarraitzaileak eta etsai amorratuak gorpuztuz.

## Fitxa artistiko eta teknikoa

**Aktoreak:**
Patxo Telleria.
Mikel Martinez.

**Testuak:**
Gabriel Aresti.

**Dramaturgia:**
Patxo Telleria.
Mikel Martinez.

**Perkusioa (Zarataria):**
García Gorria.

**Ikusentzutekoak:**
Eneko Lorente.

**Zuzendaria:**
Karlos Panera.

**Ekoizle ejekutiboa:**
Toño Pinto.

**Ekoizlea:**
Maskarada.

# BEDEREN 1

profesionala

# “Agureok ez genuke maitemindu behar”

ABENDUAK 1

ostirala, 21:30etan, Zelaitxo Antzokian



## Laburpena

Teatro herrikoia, komikoa, osagai ezberdinez josia.

Galiziako umore beltza eta fantasiak, maitasun ezinezkoekin nahasten dituena.

Honi, Tapia eta Leturiaren musika gehituz gero, herriko erromerietako usaina hartzea ezinbestekoa izango dugu.

Lan hau Koldo Mitxelena Kulturuneak eginiko “Castelao eta Galeuzca 2000” ospakizunaren barnean, irakurketa dramatizatu gisa prestatuta dago.

Aktoreak maskarak soinean dituztela mintzatzen dira, eta hainbat pertsonaia ezberdin sortzen eta aldatzen ikusiz, teatroaren magia ia gordinik, erdi bilutsik, teatroaren konplizitatea azken batean, agertuko zaigu.

“Agureok ez genuke maitemindu behar”, hiru fartsaz osatuta dagoen lana da. Fartsa bakoitzak bere nortasuna du, eta azken ekitaldian lotzen dira hiru historikoak.

Antzerkia ikusteko, entzuteko eta gozatzeko era ezberdin bat, eskeintza berezia “Bederen 1” antzerki taldearen eskutik datorkiguna.

## Fitxa artistiko eta teknikoa

**Egilea:** Alfonso Rodríguez Castelao.
**Itzulpena:** Koldo Izagirre.
**Antzezleak:**
Patxi Santamaria.
Ainhoa Aierbe.
Aitor Mazo.
Isidoro Fernandez.
Ainhoa Alberdi.
Esti Korta.
Begoña Blanco.
Goiz Eder Iturain.
**Musika zuzenean:**
Tapia eta Leturia.
**Zuzendaria:** Inazio Tolosa.
**Ekoizlea:** Patxi Santamaria.
**Maskara egilea:** Ikaro.
**Maskara diseinoa:** Inazio Tolosa.
**Argia eta soinua:** Bederen 1.
**Jatorrizko musika:**
Tapia eta Leturia.
**Ekoizpena:**
Koldo Mitxelena Kulturunea.

# "Gure haurtzaroko loratergia"

**ZURRIOLA ANTZERKI ESKOLA**

e s t r e i n a l d i a

a m a t e u r r a

**ABENDUAK 2**

larunbata, 21:30etan, Zelaitxo Antzokian



## Laburpena

Aita desagertu zenetik, Sita, alaba gazteena ez da bere etxetik atera, ama bizitza normala egiten saiatzen da, eta Laurak, alaba zaharrenak, "bere lanarekin" atera du familia aurrera. Baina Victor, alde egin zuen anaia, bueltatuko da etxera, Diana bere andregaraiekin. Victorren etorrerak, familiaren iraganeko mamu guztiak berriro azaleratuko ditu, eta orduan...

## Fitxa artistiko eta teknikoa

**Egilea:** Alberto Mirralles.
**Itzulpena:** Ritxi Lizartza.
**Banaketa:**
Sita • Aiora Auzmendi Larrea.
Ama • Arantxa Moñuz Agote.
Laura • Elixabet Oa Pujol.
Eduardo • Iñaki Iriarte Valentin.
Victor • Jorge Martin Hernandez.
Diana • Aintzane Gamiz.
**Argiak:** Karlos Salaberri.
**Zuzendari laguntzailea:** Joserra Fachado.
**Zuzendaria:** Anartz Zuazua.

# TXALO

profesionala

# "Emaztea kapelarekin nahastu zuen gizona... eta beste kasu batzuk"

estreinaldia

**ABENDUAK 8**

ostirala, 21:30etan, Zelaitxo Antzokian



## Laburpena

"Emaztea kapelarekin nahastu zuen gizona... eta beste kasu batzuk" lanaren idazlea Oliver Sacks amerikar neurologo bat da, gaur egun oso ezaguna. Titulo hau Oliver Sacks-ek orain dela hamar urte idatzi zuen liburuarena da. Peter Brook antzerki zuzendari ospetsuak bertsio bat egin zuen oso arraskastatsua eta Ramon Bareak bai liburu originaletik, bai Peter Brooken bertsiotik oinarrituta adaptazio berezi bat egin du. Bertan arazo neurologikoak dituzten hainbat gaixoren kasuak ikusten joango gara, kasu errealak izango dira.

Eszenografian pantaila haundi bat egongo da eta bertan bai lehendik, bai zuzenean grabatutako irudiak nahastuko dira.

## Fitxa artistiko eta teknikoa

**Egilea:** Oliver Sacks.
**Zuzendaria:** Ramon Barea.
**Zuzendari-laguntzailea:**
Patxo Telleria.
**Itzulpena:**
Maribi Arrieta.
Beatriz Zabalondo.
Jose Luis Aranguren.
**Neurologiko aditua:**
Fernando Sádaba.
**Aktoreak:**
Ramon Barea (erdaraz).
Paco Sagarzazu.
Inaxio Tolosa.
Ander Lipus.
Itziar Lazkano.
Jone Irazabal (euskaraz).
**Eszenografia:** Jose Ibarrola.
**Eszenografiaren eraketa:**
Carlos P. Donado.
**Musika:** Inaxio Tolosa.
**Argien diseinua:** Julen Zaballa.
**Jantzien eraketa:**
Nati Ortiz de Zarate.
**Soinu eta argi teknikariak:**
Julen Zaballa.
Josean Jaramago.
**Makilajea:** Jone Gabarain.
**Argazkia:** Alberto de la Cuesta.
**Kartel diseinua:** Marcos Barea.
**Produkzio eragilea:**
Xabier Agirre.
Gema Etxeberria.
**Produkzioa:** TXALO Produkzioak s.l.
**Banaketa:**
Charo Fernandez.
Gema Etxeberria.

kasu batzuk"

eta teknikoa

Barea.
ailea:
n.
a:
araz).
araz).
barrola.
aketa:
en Zaballa.
e.
ikariak:
rain.
la Cuesta.
cos Barea.
Produkzioak s.l.

# Novecento "Ozeanoko pianista"

## TANTTAKA

profesionala

### Laburpena

Berak esaten zuen: "Ez zaude erabat izorratuta istorio on bat izan eta nori kontatu baldin baduzu".

Novecento, "Ozeanoko pianista" antzezlanak "Bederatziehun" izeneko aparteko pianista baten bizitzaren berri ematen du. XX. mendearen hasieran Amerika eta Europa arteko ibilbidea egiten zuen itsasontzi batean - Virginian transatlantikoan - jaio zen. Bidaia hura handikiek, etorkinek eta alprojek egiten zuten. Marinelen artean hazia, "Bederatziehun" ez da sekula jaitsi itsasontzitik. Areago, ez du identifikazio-agiririk. Munduak ez du "Bederatziehun"en berri: ez dago hiririk, parrokiarik, ospitalerik, kartzelarik edo futbol talderik ere izena inon idatzia duenik. Ez du aberririk, ez jaiotze-datarik, ezta familiarik ere; ofizialki ez da sekula jaio. Bere musika besterik ez du. Bere historia bezain zoragarria den musika hori.

### Fitxa artistiko eta teknikoa

**Aktoreak**
Tim Tooney • Jose Ramon Soroiz.
"Bederatziehun" • Iñaki Salvador.
"Bederatziehun" umetan • Alexander Torres.
**Egilea:** Alessandro Baricco.
**Itzulpena (euskarara):**
Ritxi Lizartza.
**Musika:**
Iñaki Salvador.
**Eszenografia:** Jose Ibarrola.
**Jantziak:** Eli Elizondo.
**Argiztapena:** Xabier Lozano.
**Zuzendaritza:** Fernando Bernués.
**Zuzendari laguntzailea:**
Olatz Beobide.
**Zuzendaritza teknikoa:**
Edi Naudó.
**Argi eta soinu teknikariak:**
Josetxo Almandoz.
Inma Irazustabarrena.
Fernando Macías.
**Artezleak:**
Lucia Ocariz.
Ruben Etxeberria.
**Ekoizpen exekutiboa:**
Koro Etxeberria.
**Komunikazioa:** Ana Esteban.
**Ilustrazioa:** Jose Ibarrola.
**Diseinu grafikoa**
ACC comunicación.
**Argazkia:** Manuel Diaz de Rada.
**Produkzioa:** Tanttaka teatroa.
**Banaketa:**
Julio Perugorria Producciones.



ABENDUAK 9 larunbata, 21:30etan, Zelaitxo Antzokian

AZPEITIKO MUSIKA BANDAK,
ARETXABALETAKO ABESBATZAK,
JULIAN BARRENETXEA ABESBATZAK
ETA ITSASI DANTZA TALDEAK

euskarazko bertsioaren estreinaldia

# "Baserr



# e r r i a ”

ZARTZUELA

amateurra

ABENDUAK 16 larunbata, 21:30etan, Zelaitxo Antzokian



**Laburpena**

Jesús Guridi
(Gasteiz, 1886 – Madril, 1961)

Parisko Schola Cantorumen, Kolonia eta Bruselasen burutu zituen ikasketak. Madrilgo konserbatorioko organo katedraduna ere izan zen. Euskal Folklorearen ikertzaile sutsua, bere lan aipagarrienetakoen artean hainbat opera ditugu: Mirentxu (1910), Amaia (1926), poema sinfonikoak, ganbara musika, pianorako musika, organo eta abestiak, eta orkestarako "Diez melodías vascas" dira bere lan aipagarrienak, baina herrikoiena dudarik gabe "El Caserío" orain euskeratuta "Baserria" izenarekin Azpeitian estrenaldiz osorik azalduko den obra.

"Baserria" maitasun historio hau Arrigorri izeneko herrian gertatzen da., Santi indiano zaharrak, berak jasotako iloba umezurtzak (Jose Miguel eta Ana Mari deritzenak) elkarrekin ezkon daitezela nahi du baserriaren etorkizuna lotu nahian. Maitasun istorio hau, ordea, oztopoz eta trabaz beteko da. Jose Miguel alproja samarra dugu, Ana Mari, berriz, zintzoa. Burutuko ote da ezkontza?

Hiru ekitaldiko zartzuela honek hori guztia argituko digu, musika eta abesti zoragarrien bidez eta lehenengo aldiz euskaraz. Akaso euskaldunontzat zartzuela honek falta zuen gauza bakarra, oraindik eta gehiago gozatzeko.

**Fitxa artistiko eta teknikoa**

**Parte hartzaileak:**
Azpeitiko Udal Musika Banda.
Julian Barrenetxea Abesbatza.
Aretxabaletako Abesbatza.
Itsasi Dantza Taldea.

**Bakarlariak:**
Mariatxen Urkia • Sopranoa.
Mari Carmen Etxeandia • Mezzoa.
Entzi Zubiri • Tenorea.
Alfredo Cortes • Tenorea.
Jose J. Etxeberria • Baritonoa.

**Aretxabaletako Abesbatzaren Zuzendaria:**
Angel Barandiaran.

**Euskarazko Moldaketa:**
J. L. Franzesena.

**Musika Moldaketa eta Zuzendaritza:**
J. L. Franzesena.

**Zuzendaria:**
Inaxio Tolosa.

**Argiak:**
Sarobe Arte Eszeniko Gunea.

**Ekoizpena:**
Azpeitiko Udala.

# Omenaldia eta

**AZAROAK 25**

**larunbata, 12:30etan, Udaletxeko Areto Nagusian**



## Gabriel Aresti Segurola

Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketak, ohiturari jarraituz, antzerkigile ospetsu bat omendu nahi du, eta aurten aukeratutako idazlea Gabriel Maria Aresti Segurola da, 2000. urte honetan Arestiren heriotzaren 25. urteurrena dela eta. Idazle honen omenez, urte honetan han-hemenka egindako aipamen eskeintzaren zerrendan Azpeitiko Antzerki Topaketak ere egon nahi baitu.

Gabriel Arestiren idazlanak sona haundikoak izan dira eta zorionez bizirik eta kementsu iritsi dira gaur arteraino guregana eta ondorengoek ere kontuan izango dituzte, bereziki poesia lanak. Arestiren idazlanetatik, antzerkiak ditugu gutxien ezagutzen direnak.

Liburu honetan Arestiren sormenezko antzerkiari begirada bat emango zaio eta, gainera, bi galde-elkarrizketez osatuko da. Elkarrizketa honetatik bat, Arestiren sasoian antzerki mugimenduan zebilen antzerkilari bati egina eta bestea, gaur egungo antzerki zuzendari bati. Zuzendari honek Aresti ez [illegible] zi zela ezagutu baina, gerora [illegible] bidez Arestiren pentsakera [illegible] dura hartu du. Liburuaren [illegible] an bi antzerki aurkezten [illegible] aurreneko lana "Mugaldeko [illegible] nikiko tobera" eta lan honen [illegible] modura montajerako per[illegible] seinuak eta, azkenik, "Justiz[illegible] Arestiren azken antzerki lan[illegible]

### Ekitaldi Akademikoa eta liburuaren aurkezpena



### Testuen irakurketa

Maskarada taldekoek Gabriel Arestiren hainbat testuren irakurketa antzeztua eskeiniko digute.

Aktoreak: Patxo Telleria eta
Mikel Martinez.

### Erakusketa

Gabriel Aresti Segurolari buruzko erakusketa Udaletxeko beheko solairuan egongo da zabalik 2000ko azaroaren 13tik 26ra.

# Irrati Lehiaketa

RADIO POPULAR
HERRI IRRATIA

**Frekuentziak**

Loiola: FM - 99.8 • Goierri: FM - 105.1
Tolosa: FM - 89.6 • Donostia OM - 1224

Gabriel Aresti Segurola idazle ospetsua oroitaraziz, Euskadiko XVIII. Euskal Antzerki Topaketak liburu bat atera du eta Eskola Irrati Lehiaketa antolatu du.

Irakaskuntza Zentruren batean ikasten ari diren ikasleek bakarrik parte hartu ahal izango dute lehiaketa honetan. Irakasle-Tutore bat eta lau ikasle izango dira taldearen ordezkari.

Parte hartzen duten taldeek D.B.H.ko 1. ziklotik D.B.H.ko 2. ziklo bitarteko ikasketak egiten ari direnak izan beharko dute. Lehiaketan Gabriel Aresti Segurola idazlea landu eta aztertuko dute.

**Honako egitaraua beteko da:**

| | |
|---|---|
| AZAROAK 3, ostirala | Enparan Dorretxean |
| AZAROAK 10, ostirala | Enparan Dorretxean |
| AZAROAK 17, ostirala | Enparan Dorretxean |
| AZAROAK 24, ostirala | Enparan Dorretxean |
| ABENDUAK 1, ostirala | Enparan Dorretxean AZKEN EKITALDIA |

Irrati saio guztiak arratsaldeko 16:00etatik 17:00etara izango dira.

SARIAK Abenduaren 21ean, TOPAKETEN AMAIERAN, Santo Tomas egunean emango dira.

Epai-mahaia:

Axen Egaña, Antzerkiko Aholkularia.
Axen Escalada, Azpeitiko zenbait talderen zuzendaria.
Andoni Aramendi, Irakaslea.
Jaime Amenabar, Irakaslea.



AZAROAK 3,10,17,24 eta ABENDUAK 1

Enparan Dorretxean

# AZAROAK 27

astelehena, 15:30etan, Zelaitxo Antzokian



## "Alizia bitxikerien lurraldean"

### DAR-DAR PRODUKZIOAK

**Laburpena**

Alizia untxi txuri baten atzetik doanean, honi eroririko abaniko bat itzuli nahian, untxi zulo batean barrena erortzen da, eroz beterik dagoen lurralde zoragarri batean galduaz. Bihotzezko Erreginak buruak moztea besterik ez du pentsatzen eta untxiak bakarrik eraman diezaioke bere abaniko misteriotsua. Betirako lurralde horretan atxiloturik geratuko al da Alizia?

Erotu egingo al da?

Burua moztuko al diote?

**Fitxa artistiko eta teknikoa**

**Antzezleak**

Alizia • Elena Aparicio.

Gutun mezularia/Bihotzezko Erregina/Erbia • Izaskun Lopetegi.

Untxi txuria/Beldar Denboragalarazlea/Cheshire katua/Kapelagile eroa • Asier Zinkunegi.

**Egilea:** Antonio Daniel García. Lewis Carroll-en eleberriaren egoitzapena.

**Eszenografi diseinua:** Angel Reguera.

**Txotxongilo egilea eta eszenografia:** Angel Reguera.

**Musika:** Wolfgang Amadeus Mozart.

**Argiztapen diseinua:** Julen Zaballa.

**Argi eta Soinu teknikoa:** Iker Zinkunegi.

**Soinu espazioa:** Kostan Iturrioz.

**Argazkigintza:** Alberto de la Cuesta.

**Diseinu grafikoa/Kartelaren diseinua:** Alberto de la Cuesta.

**Produkzioa:** Dar-Dar Produkzioa.

**Zuzendaritza:** Dar-Dar Teatroa.



| EGUNA | ORDUA |
|---|---|
| XI • 27 | 11:00 |
| XI • 27 | 15:30 |
| XI • 28 | 11:00 |
| XI • 28 | 15:30 |
| XI • 29 | 11:00 |
| XI • 29 | 15:30 |
| XI • 30 | 11:00 |
| XI • 30 | 15:30 |

ldean"

eta teknikoa

aricio.
/Bihotzezko
lzaskun Lopetegi.
lar Denboragala-
tatua/Kapelagile
unegi.
niel García. Lewis
en egoitzapena.
ua:

a eta eszeno-
a.
madeus Mozart.
: Julen Zaballa.
nikoa:

tan Iturrioz.

telaren disei-
sta.
Produkzioa.
ar Teatroa.



# Eskola Antzerkia

| EGUNA | ORDUA | TALDEA | ANTZEZLANA(K) | Antzezleen maila/kop | IRAKASLEAK | IKUSLEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| XI • 27 | 11:00 | **Xabier Munibe Ikastola** Azkoitia | Txoria eta Pinua<br>Txanogorritxo<br>Panpin Denda | HHO 3<br>A-B-D | Henar Aizpuru<br>Maite Aierdi<br>Marian Garcia | |
| XI • 27 | 15:30 | **DAR DAR PRODUKZIOAK** | **Alizia bitxikerien lurraldean** | **PROFESIONALA** | | **LMH 1-2-3-4-5-6** |
| XI • 28 | 11:00 | **Beurko Institutua** Barakaldo | Bost ipotx askatasun bila | DBH 4<br>(11*) | Juanjo Arrizabalaga<br>Elena Sanchez<br>Mila | **LMH 4-5-6<br>DBH 1-2** |
| XI • 28 | 15:30 | **Zumadi Herri Ikastetxea** Amezketa | Pernando Amezketarraren pasadizuak | LMH 3-6<br>(30) | Agustin Amiano<br>3 Irakasle | **LMH 1-6** |
| XI • 29 | 11:00 | **Jakintza Ikastola** Ordizia | Eskale musikaria | DBH 2<br>(10) | Ximon Idiakez<br>Irakasle 1 | **HH<br>LMH 1-5** |
| XI • 29 | 15:30 | **Ikasberri Ikastola** Azpeitia | Mekanikari trebea<br>Jesus, Maria eta Jose<br>Irteerarik gabe | DBH-1 (4)<br>BAT-2 (3)<br>LMH-5 (9)<br>DBH-2 (7) | Idoia Uranga<br>Manex Beristain | **LMH 5-6<br>DBH** |
| XI • 30 | 11:00 | **Maestro Zubeldia Herri Ikastetxea** Portugalete | Soinekoa eta legatzak | LMH 4<br>(34) | Joxe Valencia | **LMH 1-4** |
| XI • 30 | 15:30 | **Armentia Ikastola** Gasteiz | Txanogorritxorenak | LMH 4-6<br>(65) | Iñaki Lasa<br>2 irakasle | **LMH 1-4** |

Zelaitxo antzokian, 11:00etan eta 15:30etan

**AZAROAK 27,28,29 eta 30**

TRAPU ZAHARRA

profesionala

# "Paquetito"

kale antzerkia

ABENDUAK 16

larunbata, 12:30etan, Enparantza Nagusian



## Laburpena

Damua sortu zitzaion toreatzaile baten kronika.

Arratsaldeko bosgarren zezena. "Paquetito"ri, zezena hiltzera doanean, halako egonezin bat sortu zaio barruan.

"Unetxo batean komunera noa, oraintxe nator" esan zuen. Ez zen gehiago itzuli.

## Fitxa artistiko eta teknikoa

**Fitxa artistikoa**

Santi Ugalde.

Patxi Perez.

Txubio Fernandez de Jauregui.

**Fitxa teknikoa**

Aldagela antzeztokitik hurbil.

**Gidoia:**

Txema Ocioren ideia eta testu batetik.

**Arropak:**

Ione Artola.

**Argazkia:**

Alberto Elosegi.

**Ekoizle eta banatzailea:**

Trapu Zaharra.

o "

eta teknikoa

ez de Jauregui.

okitik hurbil.

deia eta testu

zailea:

# "Txirrikiz"

kale antzerkia

## KUKUBILTXO

profesionala

### Laburpena

Txirrikiz, neskato etorkina, mutiko batzuengana hurbiltzen da euren jolasean sartzeko asmoz. Hauetako batek, Pelik, parre eta iseka egiten dio, baina berak begirune gozoa eginez argi miragarri bat eskaintzen dio. Pelik, argiaz jabetu arren, bere jarrerari eusten dio eta argiaren botereek Fantasiara eramaten dute. Fantasian Apo Anaiek, euren gorentasuna ezartzeko asmotan, Jentil eta Laminen aurkako borrokan dihardute eta Peli euren agindupera makurrarazten dute. Baina Peli, Laminaz maitemindurik, Jentil eta Mari Urrikaren laguntzari esker bere herrira itzuliko da, bertan Txirrikiz bere bihotzaz jabetu den Lamina dela konturatuz.

### Fitxa artistiko eta teknikoa

**Ekoizpena:**
Kukubiltxo Antzerki taldea, S.C.L.
**Ikuskizun moeta:** Txotxongilo eta animazio antzerkia.
**Formatoa:** Kalerako zein barrurako ikuskizuna.
**Ikusleak:** Adin guztietakoak.
**Gidoiaren oinarria:** Errose Bustintza "Mañariko"ren ipuinetan oinarritua.
**Gidoi egilea:** Josu Camara.
**Musika egilea:** Bixente Martinez.
**Musika interpretazioa:**
Oskorri.
**Kantuen egokitzailea:**
Joseba Etxebarria.
**Hizkuntz egokitzailea:**
Joseba Etxebarria.
**Irudi diseinuak:**
Marko Armspach.
**Eszenografia:** Quim Guixa.
**Tailerra:** Kukubiltxo, Conchi Maoñoren zuzendaritzarekin.
**Jostuna:** Nati Ortiz de Zarate.
**Argi diseinua:** Aitor Agorria.
**Zuzendaritza:** Josu Camara.
**Aktoreak:**
Marifeli Etxeandia.
Josu Camara.
Katrin Schlegel.
Iurgi Etxebarria.
Javier Obregón.
**Teknikaria:** Pablo Lasa.



ABENDUAK 21 osteguna, 16:30etan, Olazko Amaren plazatxoan

abenduak 21

osteguna, 12:30etan, Udaletxeko Areto Nagusian

# Topaketen amaiera eta Sari Banaketa

**Antzerki Topaketen XVIII. edizioaren sari banaketa.**

Ikusleen Saria

Sari honen botoa bataz besteko baten bitartez ateratzen da. Ikusiko ditugun antzerki guztietan oinarrituko da.
Antzerki Amateur mailan 100.000 pta.
Antzerki Profesional mailan 100.000 pta.

Euskal Antzerkiaren Bultzatzaileari Saria

Azpeitiko Topaketak, Euskal Antzerkia bultzatzeko lana egin duen pertsona, erakunde edo/eta abarren lana aitortuz, aipamen berezi bat egingo du.

**Irrati Lehiaketaren Saria**

**D.B.H.ko 1. zikloa**
1. saria 100.000 pta.
2. saria 50.000 pta.

**D.B.H. 2. zikloa**
1. saria 100.000 pta.
2. saria 50.000 pta.

**Kartel Lehiaketaren Saria**
Irabazleak 150.000 pezetako saria jasoko du.

**KUKUBILTXO**

**"Txirrikiz"**
Olazko Amaren Plazatxoan,
arratsaldeko 16:30etan.



**Zuzendaria**

Nekane Larrañaga

**Kultura Batzordea**

Nekane Larrañaga
Javier Beobide
Javier Iraeta
Aitor Gorrotxategi
Alejo Uranga
Miren Odriozola
Jose Luis Otamendi
Unai Lizaso

**Egileak**

TXAKEL
Azpiazu-Urarte S.L.

**Inprimategia**

Martinez, S.L.

Azpeitiko Udala

euskadirratia

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

kutxa
zuri esker
gracias a ti